

Komikien ildotik (+12)

H gabe

Sustrai Colina

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Zubia argitaletxea

Pintada bat agertu da ikastetxean beti oilarturik eta nagusikerian ibiltzen den Keparen kontra. Manu, Xabi eta Joxemari jo dituzte errudun, hain zuzen ere gelako txepelenak eta oilobustienak. Hiru lagun, nesken kuleroen koloreari eta uso kaken zenbaketan espezializatuak, autoestimu eskasekoak hirurak ere.

Argumentuak, batez ere ekintzen azkartasuna eta elkarrizketen nagusitasuna medio, erraz harrapatzen du irakurlea, eta ez da ahaztu behar 12 urtetik aurreragoko sail batean hori nahikoa meritu dela. Hala ere, *in crescendo* doan gaia ahuldu egiten da erdialdetik aurrera: gazteen piper eguna, zezen baten agerpen umoretsu baina prebisibleegi eta erabiliegiarekin, edota itsasoan egindako bainualdi gutxi aprobe txatuarekin —hiru mutil eta neska bat txalupa batean, musu bat, eta sentsualitate eskasa irakurle honen gusturako—, esan bezala, erdialdetik aurrerakoa indargabetu antzean geratzen da, eta irakurlearen jakinmina urritua.

Enkargu bati erantzunez bada ere, adin tarte zaila aukeratu du Colinak, colacao edari alkoholdukin nahasten hasten den nerabezaro konplexua hain zuzen ere. Beren burua ondo kokatu ezinik dabiltzan hiru mutil baliatu ditu istorioa biribiltzeko, baina irudipena daukat zuku gehiago atera zezakeela, eta akaso azkartasunaren mesedetan galdu duela sakontasuna. Agertzen den dibortzioaren gaiak edo, bereziki, lehen musuen inguruko auziak, askoz ere aukera gehiago eman zezaketen.

Esanak esan, Sustraik Colinak batez ere estiloan asmatu du: pertsonaiak ondo definiturik daude eta nork bere estiloa du, nork bere hizkera, konparazio eta irudi indartsu eta ugari dakarkigu, eta ipuinean zehar ageri diren errepikapenek eta moldaketek halako batasuna ematen diote lanari: «Hortzetako aparatu bat bezala sentitzen ziren. Traban, deseroso, zikin, zegokien tokia aurkitu ezinik. Hortzetako aparatuaren distira balute, sikiera... Baina ez».

Sustrai Colinaren lehen literatur lana omen da honakoa, eta esan beharra dago estraineko horretan gutxitan ikusi izan dugula hemen bezalako emaitza txukunik. Egilea bertsolaritzaren mundutik etorri izanak ere izango zuen eraginik: elkarrizketa bizi-bizikiak dira —batzuetan distiratsuegiak ere bai—, hitz joko asko ageri da, erdara erreparorik gabe sartua dago —bitxiak dira “labadora”, “sekadora” edo antzeko hitzen erabilera, euskarazkoak gaur egun eta, are gehiago gazteen artean, ondo zabalduak direnean; baina bada adibide

esanguratsuagorik: «Martxa funebrea tarareatzea baino ez zitzaion falta»—; zentzu honetan beharbada beste bitxikeria bat ere nabarmendu genezake: idazlea lapurtarra izan arren, argi dago hego aldeko euskararen aldeko apustu garbia egin duela, hain zuzen ere nork eta berak euskalkiak hurbiltzeko lan kontziente eta hoberik egin zezakeenean. Guztiarekin eta, hitz batez, begirada propioa dakarkigu egileak, ikuskera pertsonala, hurbila eta gaztea —egilea bera bezala—, freskoa, eta honekin guztiarekin lorpen ederra lortu du: komunikazioa, bai gaiaren bai hizkeraren hurbiltasunagatik. Bertsolaritza aipatu dugun honetan, ez dugu ahaztu behar Zubia argitaletxeak beste bertsolari bat plazaratu zuela orain dela urte batzuk, Igor Elortza, eta hark ere asmatu egin zuela bere lehen lana izandako *Margolana* harekin.

Amaitze aldera, komikien aire bat dario *H gabe* liburuari, bizia da, topikoetan geratzeko arriskuaren ertzean dabilena, eta irudipen hori Jokin Mitxelenaren marrazkiek areagotua dator. Azala ederra da, ondo jasotzen du istorioaren gakoa, baina barneko ilustrazioek komikien biñeten antza dute, eta beharbada txikiagi geratzen dira liburuan. Denok dakigunez, ez da ohikoa gazte bildumetan ilustrazioak agertzea, baina iruditzen zait, erabiltzekotan, presentzia handiagoarekin erabil zitezkeela, hain gutxi izanik, eta hain txikiak...

Laburbilduz, idazle baten lehen lana izateko aski obra txukuna iruditu zait, seguruenik irakurle gaztetxoak erraz harrapatuko duena. Orain bigarrenaren esperoan geratzen gara, agian sakontasun gehixeagoarekin.

Laura Sagastume